Koldo Zuazoren euskalkien mapa argitaratu du BERRIAk

Bonapartek 1870. urte inguruan egindako euskalkien mapa zen orain arteko bakarra

AGURTZANE SOLABERRIETA - DONOSTIA

Koldo Zuazo hizkuntzalariak osatu duen euskalkien mapa berria argitaratu du BERRIA egunkariak. Louis Lucien Bonapartek XIX. mende erdialdean egindako mapa zen orain arte euskalkien ikerketarako zegoen oinarri nagusia. Ordutik ikerketa eta ekarpen interesgarriak izan dira, baina gehienak lokalak eta ez dute Euskal Herri osoa izan aztergai. Zuazok Bonaparteren sailkapena eta mapa osoa egokitu ditu.

Koldo Zuazo 15 urte daramatza euskalkiak aztertzen. Atzo maparen aurkezpenean azaldu zuenez, hasieran ez zuen buruan mapa egitea eta gauzak aldatzea. Baina lanean hasi zenean Bonaparteren sailkapenak gaur egunerako ez zuela balio konturatu zen. Horregatik, beste mapa bat osatzea erabaki zuen. Horrek, ordea, ez du esan nahi Zuazoren mapak Bonparterena baztertuko duenik edo Bonaparteren mapa okerra zenik. «Bonaparteren mapa XIX. mende erdiko euskararen egoera erakusten du. Eta hori ezin da aldatu, ezin da baztertu. Gaur, bihar edo etzi norbaitek garai hartan euskara non egiten zen jakin nahi badu, han agertzen da euskararen mugak zeintzuk ziren; han agertzen da, kolore argi edo ilunaren arabera, non zegoen euskara osasuntsu eta non zegoen transmisioa etenda. Horiek jakin nahi baditugu, ezinbestean beti Bonaparteren mapara jo behar dugu», azaldu zuen.

Gaur egun Bonaparteren mapa aldatzeko premia bazegoela dio Koldo Zuazok. Haren ustez, bi dira arrazoi nagusiak. Alde batetik, ordutik hona euskalkien eremua gutxitu egin da, batez ere Nafarroan: «Nafarroako eremu zabal samarrean euskalkia galdu egin da. Euskara, ordea, zabaldu egin da: Cortesen, Fiteron eta Corellan, besteak beste, euskaldunak topatuko ditugu». Bestetik, egilearen ustez, ikastolen bidez euskara irakaskuntzan sartzeak eta euskara batuaren sorrerak euskara batzea ekarri du eta horrek euskalkietan eragin du.

Sei euskalki, ez zortzi

Arrazoi horiek direla eta, Zuazoren arabera, gaur egun sei euskalki daude, zortzi gabe: mendebaldekoa, erdialdekoa, nafarra, nafar-lapurtarra, zuberotarra eta ekialdeko nafarra. Azken hori hilzorian dagoela dio Zuazok.

EUSKALKIAK

Bonapartek 1870ean zortzi euskalki bereizi zituen; Zuazok egun sei daudela dio

«Gaur egun Erronkarin ez dago euskara autoktonoa egiten duen inor; duela 13 urte hil zen azkena. Eta aldamenean dagoen Zaraitzu ibarrean, bakarra geratzen da».

Zuazok euskalki batzuen izenak aldatu ditu: bizkaierari mendebaldekoa deitu dio, eta gipuzkerari, erdialdekoa. Besteak Bonapartek deitu bezala utzi ditu. «Buruan beti zatiketa administratiboak ditugu. Haatik, euskalkien banaketa eta banaketa administratiboa ez datoz bat. Bizkaia Bizkaia da, eta Bizkaiko euskarari, Gipuzkoa eta Arabako alderdi batzuetan egiten denez, bizkaitarra deitu beharrean, mendebaldeko euskara deitu diot. Halaber, esaterako, Arabako Araitz ibarrean ere Gipuzkoako euskara hitz egiten da. Beraz, ez dut egokia ikusi horri gipuzkera deitzea; erdialdekoa deitu diot», azaldu zuen. Halaber, Bonaparteren mapan euskalkien barruan 25 azpieuskalki agertzen baziren ere, Zuazok14 bereizi ditu: bi mendebaldean, hiru erdialdekoan, lau nafarrean, hiru nafar-lapurtarrean eta nortasun handiko bi ekialdeko nafarrean (Zaraitzu eta Erronkari ibarretakoak). Zuberotarra oso homogenenoa dela dio egileak.

SALMENTA

Durangoko azokan izango da salgai, 6 eurotan; gero, 8 euro balioko ditu

Euskalki bakoitzak bere kolorea du mapan, eta azpieuskalkiak bere euskalkiak duen kolorearen tonalitatearekin azaltzen dira. Joxean Apeztegia BERRIAko infografistak egin du grafikoa. «Ulertzeko erraza izatea eta Koldok mapan azaldu nahi zituen xehetasunak ondo azaltzea izan dira nire helburu nagusiak. Eta horretarako kolorea erabili dugu», azaldu zuen atzo Azpeztegiak aurkezpenan.

1870. urte ingurutik —Bonaparteren garaitik— euskalkiek izan duten bilakaera azaldu zuen Koldo Zuazok. Euskalkiak nola aldatu diren ikusteko adibide garbiena Nafarroa dela dio. «Nafarroako iparraldeko ibar